

ARGAZKI LEHIAKETAKO SARIEN DEIALDIAREN OINARRIA

"La igualdad a la vista en la Cendea de Olza

Berdintasuna begi-bistan Oltza Zendea"

2021eko egutegia

1. OINARRIA. XEDEA ETA DATA

Oltza Zendeako Berdintasun, Gizarte Zerbitzu eta Osasun zinegotzigoak antolatutako argazki-lehiaketa 2020ko ekainean, uztailan eta abuztuan egingo da. Lehiaketa honen helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean sentsibilizatzea da, aurkeztutako argazkiekin egutegi parte-hartzaile bat sortuz.

2. OINARRIA. PARTE-HARTZAILEAK

16 urtetik gorako nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta, gehienez, argitaratu gabeko bost argazki aurkeztu ahalko dituzte.

3. OINARRIA. GAIAK

Argazkiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna islatzen duten Oltza Zendeako eguneroko bizitzako egoerak irudikatu beharko dituzte. Adibideak:

- Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea
- Erantzunkidetasuna etxeko lanetan eta zaintzan
- Maskulinitate berriak
- Pertsonen arteko berdintasunezko harremanak
- Berdintasuna landa-eremuan
- Kirola berdintasunean
- Hezkidetza
- Aisia eta jolasa berdintasunean
- Hizkuntza eta irudi ez-sexistak
- Osasuna eta generoa

4. OINARRIA. AURKEZTEKO MODUA

Parte hartu nahi dutenek argazkiak bidali beharko dituzte posta elektronikoz carla@berhezi-igualdad.com helbidera edo udal bulegoetan utzi CD edo drive bidez.

Aurkeztu beharreko argazkien ezaugarri teknikoak honako hauek izango dira:

- JPEG formatu digitala
- Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara
- Gehienez bost argazki pertsonako
- Aurkeztutako argazkiek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, eta beste ezein lehiaketetan saritu gabeak, eta beste edozein bidetatik argitaratu edo zabaldu gabeak izan behar dira.
- Parte-hartzaileek erantzukizuna hartzen dute argazkietan beste pertsonen eskubiderik egon ez dadin, bai eta irudi-eskubideengatik egindako erreklamazio guztiez ere.

Irudiez gain, testu-fitxategi bat izan beharko dute, datu hauekin:

- Datu pertsonalak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa
- Argazkiaren edo argazkien izenburua

Parte-hartzaile bakoitzari mezu bat bidaliko zaio, fitxategiak jaso direla eta irudiak behar bezala ikusi direla baieztatzeko. Behin irudi guztiak jasota, epaimahaiari emango zaio, egileen anonimotasuna zainduz.

6. OINARRIA. AURKEZTEKO EPEA

Ekainaren 1etik irailaren 1era, biak barne.

7. OINARRIA. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarriak udaletxeko iragarki-taulan, webgunean eta udalaren egoitza elektronikoan kontsultatu ahal izango dira.

8. OINARRIA. EPAIMAHAIA

Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Esperanza Ezcaray Aranguren
- María Isabel Blanco Alvarez
- María José Garayoa Elizalde
- Andoni Eguillor Larumbe
- Carla Ruiz Armendariz

Epaimahaiburu Esperanza Ezcaray Aranguren eta, idazkari gisa, Carla Ruiz Armendariz, Berdintasun Zerbitzuko aholkularia.

Epaimahaiak baimena du sortzen den edozein arazo konpontzeko. Arazo hori oinarrietan jasota egon edo ez, gatazkak eta ezustekoak konpontzeko eskumena eta aginpidea izango du.

Epaimahaiak botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta erabakia apelaezina izango da; era berean, sari guztiak edo batzuk esleitu gabe uzteko eskubidea izango du, baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte bere irizpidearen arabera behar adina merezimendu betetzen.

9. OINARRIA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu oinarritzat puntuazioa lortzeko:

- Argazkia Oltza Zendeako bizitzaren isla izatea
- Obraren edukia eta proposatutako gaiarekin duen lotura
- Argazkien kalitatea
- Originaltasuna

10. OINARRIA. SARIAK

Honako sari hauek ezartzen dira:

Lehen saria 200 €

Bigarren saria 100 €

Hirugarren saria 50 €

11. OINARRIA. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ETA SARI-BANAKETA

Epaimahaiaren erabakia 2020ko irailaren 10ean argitaratuko da, dagokion aktan jasoz.

Sarituei telefonoz jakinaraziko zaie epaia.

Ediktu-taulan eta Oltza Zendeako Udalaren webgunean argitaratuko da.

Sariak emateko ebazpena Alkatetzaren ebazpenaren bidez emango da.

12. OINARRIA. AURKEZTUTAKO OBREN JABETZA

Saritutako argazkien egile-eskubideak argazkilariaren esku egongo dira aurrerantzean ere.

Udalak argazki-funtsean gordeko ditu entregatutako irudiak, eta denbora-mugarik gabe erabili ahal izango ditu irabazi-asmoa izan dezaketen jardueretan, karteletan, katalogoetan, erakusketetan, lehiaketaren dibulgazioan eta udalak egiten dituen lan guztietan, eta ez zaizkie hirugarrenei emango.

13. OINARRIA. ORGANO ESKUDUNA

Deialdia onartu eta ebazteko organo eskuduna alkatea da.

14. OINARRIA. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartze hutsak deialdi horren oinarri arautzaileak erabat onartzea dakar.

15. OINARRIA. AZKEN ARAUAK

Lehiaketako epaimahaiak edozein ezusteko ebazteko eskumena izango du. Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein egoera lehiaketa garatzeko modurik egokienean ebatziko du antolakuntzak.